

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeko hainbat gastu izango ditugu, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izango da. Gure enpresak edukiko dituen gastuak ez dira oso handiak izango eta webgunearen sorrerak beraz, ez digu inbertsio handirik suposatuko.

Kostu finkoak: oraingoz, kostu finko bakarra dugu, webgunearen hostinga. Hilabetero 5€ ordainduko ditugu. Ez dugu bestelako gasturik izango lan tresnekin eta gure ekipo informatikoa erabiliko baitugu.



Kostu aldagarriak: hiru hilabetero, apunte onenaren egilearentzako sariak erosi beharko ditugu eta kostu hauek aldagarriak izango dira. Sariak beti ezberdinak izango dira urte sasoiaren eta moden arabera, eta hauen kostuak ere ez dira beti berdinak izango noski.



Halere, gure enpresa balioan oinarritutako negozio-eredua da eta interes handiena ez da kostuak minimizatzea, erabiltzaileari ikasketetan laguntzea baizik. Gure zerbitzuaren kalitatea zaindu nahi dugu eta horregatik iritsi bezeroarengana.

